

pisukide berria :



barrendik 200-300

1A maila

ikaslearena

EGILEAK

Proiektuaren arduraduna:
Koordinatzaile didaktikoak:

Juxto Egaña (HABEko Hizkuntzaren Didaktika arduraduna)
Begoña Martinez (HABEko teknikaria)
Sabin Zabala (HABEko teknikaria)

Partehartzaileak:

Mertxe Luzuriaga (Deustuko Unibertsitatea. Euskal Irakasletoa)
Idoia Elgezabal (Deustuko Unibertsitatea. Euskal Irakasletoa)

Errealizazio didaktikoa:

Agurne Aizpitarte (HABEko teknikaria)
Felix Sainz (HABEko teknikaria)

© HABE 2001 ISBN:84-86968-37-2
Legezko Gordailua: SS-662/01

Inprimaketa: **Gertu Inprimategia. Oñati**

HABE Erakundeak eskerrak ematen dizkio Deustuko Unibertsitatearen Euskal Irakasletoari materialgintza proiektu honetan parte hartzerakoan agertu duen borondateagatik. Halaber, esker ona luzatu nahi die euskalduntze-alfabetatzegintzan diharduten euskaltegi guztiei, beren esperientzia eta ekarpena baliagarri izan direlako.

Diseinua, maketazioa eta marrazkiak: **Marisa Mantxola**

Gure esker ona ondoren aipatzen direnei, hainbat material eta ideia hartzeko baimena eman digutelako:

ETB: *Bi eta bat* saioa

pisukide berria

barrendik 200-300

Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua

1A maila

ikaslearena



AURKIBIDEA

1. Sarrera

- | | |
|-------------------------------|---|
| 1. Lan-egitasmoa | 6 |
| 2. Ikastunitatearen ibilbidea | 7 |

2. Atazak

- | | |
|---------------------------------------|----|
| A Ataza: Pisukide berria | 8 |
| B Ataza: Zein auzotan bizi nahi dugu? | 11 |
| C Ataza: Non dago...? | 14 |
| D Ataza: Pisu bila | 16 |

3. Eranskinak

- | | |
|------------------------|----|
| 1. Autoebaluazio-orria | 18 |
|------------------------|----|

4. Material osagarriak

- | | |
|---------------------------|----|
| A Ataza: Pisukide berria | |
| 1. Zergatik daude okupak? | 20 |
| D Ataza: Pisu bila | |
| 2. Geure etxebizitza | 22 |

1.

LAN-EGITASMOA

Ikastunitate honetan etxebizitzaren inguruan arituko gara. Ikasle-
-pisuak, auzoak, alokairuak... izango ditugu hizpide. Horrez gain, zeure
burua deskribatuko duzu, zure ikaskide batzuekin batera pisua alokatuko
duzu gustuko duzuen auzoan...

2. IKASTUNITATEAREN IBILBIDEA




ATAZA: PISUKIDE BERRIA

Ataza honetan pisukide berri baten bila ibiliko zarete, pisua alokatu nahi duzuelako eta laugarren laguna behar duzuelako merkeago izateko.



1

- Hasteko, erantzun labur-labur ondoko galdera hauei:
Zuen herri/hiritik kanpo ikasten edo lan egiten ibili zarete inoiz?
Inoiz alokatu duzue pisuren bat?
Izan zarete inoiz ikasleen pisu batean?
- Unibertsitateko hiru lagun zarete eta, pisua merkeago alokatzeko, laugarren laguna behar duzue. Unibertsitateko posta elektronikoa erabili duzue, bai pisuak topatzeko, bai lagunak elkartzeko laguntza-zerbitzua eskaintzen duelako. (<http://www.sc.ehu.es>)
Hona hemen gaur aurkitu duzuen mezua. Irakur ezazue:



- Orain, JL zein den asmatzen ahaleginduko zarete. Hiru argazki hauetatik JL nor izango dela uste duzue?





































- Bideo-pasarte bat ikusiko duzue orain, aurreikusi duzuen guztia egiaztatzeko.

2

- Orain badakizu zein den JL. Elkartu ikaskide batekin eta saiatu bion artean JLri dagozkion ezaugarriak aukeratzten: JL altua bada, idatzi "altua" irudiaren ondoan.

Joxe Lontxoren ezaugarri fisikoak:


					
					
					
					
					
					

- Beheko koadroan nortasunarekin lotutako adjektiboak dituzue. Pisukidea bilatu behar izanez gero nolakoa izatea nahiko zenukete?

NORTASUNAREKIN LOTUTAKO ADJEKTIBOAK:

serioa	<input type="checkbox"/>	alaia	<input type="checkbox"/>
lasaia	<input type="checkbox"/>	urduria	<input type="checkbox"/>
buru argia	<input type="checkbox"/>	buru gutxikoa	<input type="checkbox"/>
langilea	<input type="checkbox"/>	alferra	<input type="checkbox"/>
umore onekoa	<input type="checkbox"/>	jenio txarrekoa	<input type="checkbox"/>
jendekoia	<input type="checkbox"/>	bakartia	<input type="checkbox"/>
lotsatia	<input type="checkbox"/>	lotsagabea	<input type="checkbox"/>
baikorra	<input type="checkbox"/>	ezkorra	<input type="checkbox"/>
berritsua	<input type="checkbox"/>	isila	<input type="checkbox"/>
martxosoa	<input type="checkbox"/>	martxa gutxikoa	<input type="checkbox"/>
arina	<input type="checkbox"/>	geldoa	<input type="checkbox"/>
txukuna	<input type="checkbox"/>	narratza	<input type="checkbox"/>
sentibera	<input type="checkbox"/>	gogorra	<input type="checkbox"/>
erabakiorra	<input type="checkbox"/>	kokoloa	<input type="checkbox"/>
ezeinena	<input type="checkbox"/>	geldoa	<input type="checkbox"/>
berekoa	<input type="checkbox"/>	eskuzabala	<input type="checkbox"/>
atsegina	<input type="checkbox"/>	desatsegina	<input type="checkbox"/>
Urduria	<input type="checkbox"/>	lasaia	<input type="checkbox"/>

- Orain prest zaude zeure burua behar bezala deskribatzeko. E-mail bat idatziko duzu, sei bat lerrokoa, zeure burua deskribatuz. E-maila nola idazten den gogorarazteko, Joxe Lontxok bidalitakoa berriro irakurtzea komeni zaizu. Deskribapena egiterakoan, ezaugarri fisikoak eta nortasuna adierazteko lehen ikusi dituzun hitzak erabilgarriak izango zaizkizu. Deskribapenean alderdi fisiko, nortasun eta janzkeraren berri eman behar duzu, baina zure izena idatzi gabe.



ATAZA: ZEIN AUZOTAN BIZI NAHI DUGU?

Ataza honetan bizitzeko auzoa aukeratu ahal izango duzu. Hiru auzotatik bat hautatu beharko duzu. Baina zeren arabera erabaki? Auzoan dauden zerbitzuengatik aukeratuko zenuke bata edo bestea? Etxebizitzarengatik, akaso? .

1

- Komentatu ikaskideekin auzo batean edo hiriaren erdian bizi zaren eta zeintzuk diren toki bakoitzean bizitzearen alde onak eta txarrak.
- Hiru auzo aukeratu ditugu eta berorien artean non bizi nahi duzun pentsatu beharko duzu. Horretarako, hurrengo orrialdeetako informazioa (AUZOAK) irakurtzea lagungarri izango zaizu.
- Gustukoena erabakitzen duzunean, elkar zaitetz auzo berbera aukeratu duten ikaskideekin eta komentatu zein abantaila ikusten dizkiozuen...
- Beste taldeetakoiei kontatu beharko diezue zergatik aukeratu duzuen auzo hori.




AUZOAK



San Inazio

Abando

Alde Zaharra



Kirol instalazioak:

■ San Inazion:

San Inazioko polikiroldegia, Orixe,13; Eskubalo eta futbito zelaia, Islas Canarias, 14; Frontoia, Levante plazan.

■ Abandon:

Dña.Casilda parkeko saskibalo zelaia eta gimnasia egiteko ibilbidea.

■ Alde Zaharrean:

Frontoia, Esperanza kalean, La Peñako polikiroldegia.



AUZOAK

Kulturakoak:**San Inazion:**

San Inazioko liburutegia, Lehendakari Agirre, 176;
Deustuko Gizarte Etxea, Lehendakari Agirre, 42.

Abandon:

Barrainkuako Kultur Etxea, Barrainkua, 5; Arte
Ederretako Museoa, Museo plaza, 2; Bilbao Orkestra
Sinfonikoa, Ledesma, 4; Guggenheim Bilbao Museoa;
Abando-Ibarra Etorbidea, 2.

Alde Zaharrea:

Ibaiondo Gizarte Etxea, Pelota, 10; Arriaga Antzokia,
Arriaga plaza, 1; Txistuko Udal Ikastegia, Santa
Maria, 2; Bidebarrietako Liburutegia, Bidebarrieta, 2;
Euskal Herriko Historia eta Arkeologia Museoa, Santos
Juanes plaza; La Merced-Bilbao Rock, Ama
Mesedetako zubiondoan, 1; Eleiz Museoa, San Anton
ondoan.

**Janari dendak**

■ Denda txikiak topatzeko ez dago inongo arazorik ez San Inazion, ez Abandon, ez Alde Zaharrea: okindegi, fruta denda, harategi, arrandegi eta bestelakoak, nahi beste. Supermerkatu eta hipermerkatuei dagokienez, San Inazion bost daude gutxienez, Abandon, lau eta Alde Zaharrea, ez dago horrelakorik, txikiak dira janari dendak.

**Zine aretoak**

- Deustuko Avenida zine aretoak, Lehendakari Agirre, 23
- **Bilbo erdian**, beste guztiak, Astoria, Kanpuzano plazan; Capitoll, Villarias, 10 (Alde Zaharretik hurbil); Coliseo, Urkixo Zumarkalea, 13; Consulado, Rodriguez Arias, 17; Ideales, Egaña, 1; Mikeldis, Urkixo Zumarkalea, 66; Multiak, Jose Maria Eskuza, 13-15., Indautxu inguruan.

**Tabernak, jatetxeak etabar**

- Ez duzue inolako arazorik izango taberna, jatetxe, pub bat topatzeko auzo hauetan. Gorabehera bat edo beste egon daiteke prezioetan.

- Azalpena eman ondoren berriz elkartuko zarete taldekoak, zuen auzoko zerbitzuak kontuan izanda larunbaterako plana antolatzeko. Testua berriz irakurri beharko duzue, interesatzen zaizuen informazioa aurkitzeko. Ahalegindu plan erakargarria antolatzen. Ea zuen auzoa den dibertsiorako bide gehien ematen duena!



OSTIRALA



LARUNBATA



IGANDEA

ATAZA: NON DAGO...?

Helbide bat emanda leku horretara nola ailegaten den adierazteko ze hizkuntz baliabide erabili behar diren aztertuko duzue ataza honetan.

1




- Hiri edo herri ezezagun batera heltzen zarenean, kale bat topatzeko orduan zer nahiago duzu galdezka hasi ala mapak erabili?

- Hauek dira geuk eskatutako ezaugarriak kontuan izanik topatu ditugun pisuak:
 - Islas Canarias 64, 4.a. San Inazio
 - Iparragirre 44, 3.a. Abando
 - Artekale 12, 5.a. Alde Zaharra

Saia zaituz pisuak mapan kokatzen, jabeek telefonoz emandako instrukzioei kasu eginez.





- Orain helbide baten berri emateko baliabideak aztertuko ditugu. Erabili ditugun testuetan bertan topatuko dituzu adibide eta ereduak. Testuak hartu eta azpimarratu helbide baten berri emateko erabiltzen diren formak. Lan hori egin ondoren, hiru zutabetan sailkatuko dituzu azpimarratutako formak: denbora adierazteko formak, lekua adieraztekoak eta modua adierazten dutenak.

Denbora	Lekua	Modua

- Denok bukatzen duzueanean, talde handian ikusiko duzue nola egin duten beste guztiek eta lanak alderatzeko eta zalantzak galdetzeko aukera izango duzue.

ATAZA: PISU BILA



“Denek zieten enbidia etxe hartan bizi ziren estudianteei. Izan ere, hiri hartara ikastera joandako gazte gehienak ikasturterako alokatutako pisu txiki, zahar, zikin, zaratatsu eta deserosoetan bizi ziren bitartean, talde hartakoek guztiz bestelako etxea zeukaten. Inork ez zekien zelan lortu zuten halako aukera, baina kontua da hiriko leku lasaienean jauregiz inguratutako jauregi batean bizi zirela”

J. Arretxe. *Ostegunak*. Atsoa. 83. or

- Elkartu ikaskide batzuekin eta zerrendatu etxe arrunt batek dauzkan osagaiak: zenbat gela, komun...
- Pisua aukeratzeko orduan, zeintzuk dira gutxieneko baldintzak? Jar itzazue ondorengo fitxan.



GUTXIENKO BALDINTZAK

Pisuaren ezaugarriak

Metro koadroak, gutxi gorabehera:

GELA KOPURUA: Gela bikoitzak

Banako gelak

Komun-kopurua:

Berogailua:.....

Igogailua:.....

Altzaririk? BAI / EZ

Telebista:.....

Sukaldea. Tresneria, hozkailua, garbigailua, mikrouhina...

Telefonorik?

Terraza-balkoirik?

Prezioa:

Fidantza:

Komunitate-gastuak barne: BAI / EZ

1

- Hiru taldetan jarriko zarete eta talde bakoitzak bideoa ikusi eta pisu baten inguruko informazioa jasotzen saiatuko da. Bideo-saioa amaitu bezain laster elkarri eman beharko diozue jasotakoaren berri, denok datu guztiak edukitzeko.

Hauexek dira ikusiko ditugun pisuak:

- Islas Canarias 64, 4.a. San Inazio. Hilean, 100.000 pta.
- Iparragirre 44, 3.a. Abando. Hilean, 140.000 pta.
- Artekale 12, 5.a. Alde Zaharra. Hilean, 65.000 pta.

	1. PISUA	2. PISUA	3. PISUA
Zenbatgarrena			
Non dagoen			
Igogailua			
Logelak			
Komuna(-k)			
Sukaldea			
Egongela			
Terraza			
Berezitasunak			

2

Hirukoteka orain ere pisuak aztertuko dituzue, pisu bakoitzaren aldeko eta kontrako arrazoiak aipatuz. Ados jarriko zarete eta erabakiko duzue zein pisu alokatuko duzuen. Zuetako batek idatziz jasoko ditu arrazoi horiek eta, azkenik, taldearen erabakia zein den azalduko duzue denon aurrean.

ALDEKO ARRAZOIAK	KONTRAKO ARRAZOIAK

1. AUTOEBALUAZIO-ORRIA

- Lehenengo atazan, pertsonak deskribatzen aritu zara. Ezetz gogoratu, erabili dituzun hitzak!

Ezaugarri fisikoak deskribatzeko bost bikote gogoratu; adibidez, ahula-sendoa.

1. -----
2. -----
3. -----
4. -----
5. -----

- Orain, egizu gauza bera nortasuna deskribatzen dutenekin. Adibidez, isila-berritsua.

1. -----
2. -----
3. -----
4. -----
5. -----

- Nahi baduzu zeure agendari begiratu eta biharko egunean egingo duzunaren berri emango diguzu, nora joan behar duzun, nola, zertara, norekin... Erabili eskematxoa hau:

GOIZEAN,

.....
.....
.....

EGUERDIAN,

.....
.....
.....

ARRATSALDEAN,

.....
.....
.....

GAUEAN,

.....
.....
.....

- Hartu berriro Alde Zaharreko mapa (C ataza) eta azaldu Arenaletik Somera kalera joateko zer egin beharko dugun.

.....
.....
.....
.....

- Ikastunitate honetan pisu bat aukeratu dugu. Irakur itzazu hemen aipatzen ditugun arrazoiak. Zuk aipatu dituzu? Zeintzuk? Beste arrazoirik gogoratzen baduzu, idatziz jarri:

Aukeratu dugu,

- besteak baino handiagoa delako;
- lanetik hurbil dagoelako;
- besteek baino komun bat gehiago duelako;
- auzo honetan zerbitzu asko dagoelako;

- besteak baino merkeagoa delako;

Idatzi hemen zuk aipatu duzun beste arrazoiren bat:

- Azkenik, zeuk duzu hitza. Zer iruditu zaizu egindakoa? Zerbait errepasatu nahi duzu? Zeozer ikasi? Hemen duzu zure inpresio horiek adierazteko tokitxoak. Aurrera!

.....
.....
.....
.....

1. ZERGATIK DAUDE OKUPAK?



Okupen mugimendua oso zabaldua dago munduan barrena eta orain toki bat egingo diogu gurean.

- Idatz ezazu hiru minututan okupa hitza entzunda burura datorkizun guztia.

OKUPA -

.....

.....

.....

- Inkesta irakurri ahala, azpimarra itzazue eta zerrendatu ideia desberdinak.

Inkesta

Zergatik daude okupak?

Kasualitatea izan zen, gaia aukeratu, eta telebistan irudi gogor batzuk ikusi genituen. Madrileko auzo batean okupak, nola atera zituzten. Bizilagunek eta kaleko jendeak ere hitz egin zuen kazetariaren aurrean. Batzuek okupen alde: ez diotela inori kalterik egiten. Beste batzuek, kontra: adibidez, gau-erdian musika oso altu jartzen zutela, hori zioten. Hemen, gurean, okupa askorik ez da. Baina zergatik daude okupak, zergatik sortu da mugimendu hori? Horixe okupak, zergatik sortu da mugimendu hori? Horixe galdetu diegu Gasteizko Amaiur euskaltegiko hainbat ikasleri



Karlos Jimenez (8. urratsa)

Ez dago lanik, ez dirurik; horrexegatik jendeak bilatzen du denetik. Gainera, Konstituzioan ipintzen du denok dugula etxea izateko eskubidea. Etxeak hutsik daude. Eta etxe horiekin espekulatu egiten da, eta beste etxeen prezioa igo egiten da horrela.



Manu Arakama (2. urratsa)

Arazo ekonomiko, kulturala eta soziala da. Adibidez, hemen ez dago okuparik, baina arazo ekonomikoak bai, eta etxebizitzaren arazoa ere bai. Baina kultura aldetik hiri honek beste aukera batzuk eskaintzen ditu, okupa izan gabe. Okupak daude sistemari erantzuteko, batez ere horregatik. Ez hainbeste diru faltagatik.



Sonia Compañon (8. urratsa)

Gazteak etxetik joan nahi badu, ezin du pisurik erosi. Edo etxean egon nahi ez badute, zer egin behar dute? Ni joango nintzateke. Komodo bizi garela etxean? Bai, baina lagun batekin joaten bazara... Hemengo Gaztetxea leku okupatua da, eta gauza asko egiten dira.



Mirian Artutx (2. urratsa)

Etxeak oso garestiak dira, eta gazteak ez daukagu aukerarik, ez dirurik, ez laguntzarik. Erdaraz esaten dena: "derecho a techo". Ba hori. Etxe huts asko dago. Eta bizitzeko beste modu bat da, alternatiboa... Dagoena aprobetxatuz bizi. Etxea ez dadila izan dirua dutenentzako pribilejio. Nik joan nahi dut okupa.



Eneko Ortega (2. urratsa)

Gurasoek beren bizitzeko modua inposatu nahi diete gazteei, zaharkitua. Eta zu ez bazaudete ados, "banoa hemendik" esaten duzu, baina ez baduzu lanik, ez dirurik... Zer egin behar duzu? Kanean bizi edo nonbait sartu? Hutsik dauden lekuetan sartu, noski! Zuk pentsa, Europako okupa guztiak kale gorrian!



Xabi Agirre (8. urratsa)

Nire ustetan okupek egiten dituzten gauzak behartuta egiten dituzte. Haiek ez dute horrelako bizitza eraman nahi, baina, azken finean, gizarte honetan dirua duenak lortzen ditu gauzak, eta hori gaizki dago. Kapitalismoarekin ez daude ados, legeak gaizki daude, okupen aurka



Juan Lanz (4. urratsa)

Gizarte honen kontrako borroka da. Gizarte honetan lanik eta dirurik ez baduzu, ezin duzu etxerik erosi. Etxea da problema, baina protesta-modu bat da, baita ere. Ni joan? Oraingoz ez.

IDEIA DESBERDINAK



- Ideiak atera ondoren, erabil ditzakezue okupen gaineko ohar txo bat idazteko




2. GEURE ETXEBIZITZA

Oraingo honetan pisu baten aurkezpena prestatuko duzue, pisu-saltzaileak izango bazinete bezala.




1

- Etxe bat osatzen duten elementuen zerrenda koadernoan jasoko duzu eta, galderen bitartez, gela horien ezaugarriak zerrendari erantsiko.
Adibidez,
Nolakoa izango da sukaldea?
zabala-estua/ handia-txikia/ berria-zaharra/ argia-iluna/... eta horrela gela guztiekin.




- Irakasleak bideo-pasarte baten transkripzioa emango dizue. Irakurri eta saltzaileak deskribapena egiteko erabili dituen hizkuntz baliabideak azpimarratuko dituzue.
- Orain, transkripzioari begiratu gabe, erabaki zer erabiliko duzuen deskribapenean: agintera formak, espazio-antolatzaileak, graduatzaileak, adjektiboak...
- Bideo-pasartearen irudiak aurrean, deskribapena idatziko duzue pisu-saltzaileak bazinete bezala.




2

- Zure etxeko planoak marraztuko duzu: zenbat gela, non, zein zeinen ondoan dagoen. Ondoren, ahoz, ondokoari azalduko diozu nolakoa den zuen etxea, planoaren laguntzarekin.

- Etxea non dagoen,
- handia/txikia den,
- zenbat bizi zareten,
- zenbat gela dituen,
- handiak / txikiak diren,
- sukaldea nolakoa den,
- egongelan zer dagoen,
- zenbat telebista dituzuen eta non,
- komuna(k) zelakoa(k),
- armairuak klasikoak/modernoak diren,
- hormak nola dauden dekoraturik,
- argitasun handirik duen ala ez,
- balkoirik duen,
- eta abar.



ETXEKO PLANOA



OHARRAK

A large rectangular area with a light beige background, containing 25 horizontal dotted lines for writing. The lines are evenly spaced and extend across the width of the page.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Erakunde Autonomiaduna
Organismo autónomo del



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



ISBN 84-86968-39-9



9 788486 968373